

AECC MINBIZIAREN AURKAKO ESPAINIAR ELKARTEAREN BIZKAIKO LURRALDE EGOITZA: ***Onkologiako doktorego aurreko laguntza deialdia 2022***

Deialdiaren ezaugarriak:

AEECCren Bizkaiko lurralde egoitzak deialdi publikoa egiten dio minbiziaren aurkako ikerkuntzan prestakuntza bidean ari den pertsonalari doktorego tesia egin dezaten, lurralde egoitza honen eraginpeko eremuan ari diren eskatzaileak ez beste inor lehiatu ahal izango delarik.

Diru laguntzen ezaugarriak:

- Laguntzen zuzkidura gordina 24.000 eurotakoa da urtean. Zenbateko honetatik kendu beharko dira PFEZri dagokion zenbatekoa eta gizarte segurantzaren kostua.
- Laguntzen iraupena 36 hiletakoa izango da, beste 12 hiletara luzatu ahal izango dena.

Eskaerak aurkezteko epea:

Epea 2021eko urriaren 28an amaituko da, 15:00etan.

Eskaerak aurkezteko prozedura:

Hautagaiek eskaria aurkeztu beharko dute esteka honetan: <https://www.contraelcancer.es/es/area-investigador/ayudas/talento/Predoc-2022>

Jarritako eskaria osatu gabe bada edo baldintza guztiak betetzen ez baditu, bazterrean utziko da, errakuntzak zuzentzeko aukerarik gabe.

Eskarrien edukia:

1. Eskatzailearen CV
2. Ikerketaren memoria zientifikoa
3. Eskaneatutako licenciatura / graduko titulua
4. NANA eskaneatua
5. Proiektuaren zuzendariaren CVA
6. Talde hartzailean onartua izan dela justifikatzen duen gutuna, proiektuaren zuzendariak eta **UPV/EHUko ikerkuntzaren arloko errektoreordeak** sinatuta, ikerkuntza batzordearen edo baliokidearen ontzat emanarekin batera, eskatzaileak garatuko duen lan ildoaren interesa eta bideragarritasuna justifikatuz
7. Ikasketa expedientea
8. Master titulua

UPV/EHU n bete beharreko prozedura:

UPV/EHUK kontratuak egingo ditu unibertsitateko sail edo institutu bati atxikiko diren pertsonekin, ez beste inorekin.

UPV/EHUri adskribatu nahi duten hautagaiek ikerkuntzaren arloko errektoreordearen sinadura eskatu beharko dute, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera idatzita **2021eko urriaren 26ko 8:00ak arte**. Mezu elektronikoa honetan aipatu beharko dute, gainera, proposatutako tesiaren zuzendariaren eta ikertalde hartzailearen ikertzaile nagusiaren izen-deiturak. Errektoreordeak

sinatuko ditu dokumentuok azkena. Hortaz, dokumentu hauek gainontzeko sinadura guztiak bertan direla, bidaliko dira pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora.

Fundazioekin harremanetan jartzeko:

Helbide elektronikoa: bizkaia@aecc.es

UPV/EHUren kontaktua:

Helbide elektronikoa: pre-postdoc.dgi@ehu.eus

Telefonoa: 94 601 8008

Zalantzak:

fundacion.cientifica@aecc.es